

## CARMEN PARDO

(UN)common sounds izeneko topaketen barruan, Filosofian doktorea den Carmen Pardok hitzaldi bat eman zuen soinuaren eta politikaren arteko loturari buruz. Haren iritziz, soinua lagungarria izan da Historiako une desberdinetan, boteretik inposatutako portaerazko jarraibideak barneratzeko, baina baliagarria ere izan daiteke prozesu horiei zirkuitulaburra eragiteko.

Solasaldiaren hasieran hizlariak gogora ekarri zituen gobernuen eta musikaren arteko lotura aipatzen duten bi baieztapen. Lehenengoa 1978an Jacques Attali egina, *Noise (Zarata)* liburuan honako hau baitzioen: "plazerretik harantz, musikak Estatuaren 'estatusaz' informatzen gaitu". Bigarrena John Cageren *The future of music (Musikaren etorkizuna)* izeneko liburutik hartuta zegoen. Cagerek honela idatzi zuen: "Mendebaldean musika lan handiak monarkien eta molde diktatorialen eredu dira. Hala, zuzendaria eta musikagilea erregearekin eta lehen ministroarekin pareka litezke; halaber, musika mota anarkikoak anarkiaren eredu dira". Bi egile horien baieztapenak zuzentzat jotzen baditugu, hau da, musikak Estatuaren "estatusaz" informatzen duela, eta, halaber, gizarte harremanen eta murgilduta gauden errealitatea eraikitzearen eredu direla, orduan, Carmen Pardoren ustez, laborategi globalaren barruan fase esperimental batean gaudela proposa genezake, "Delako laborategi hori bizi garen mundua baino ez da; nire asmoa da ikustea zer lotura duten elkarrekin laborategi handi horrek eta beste txikiago batek, musika esperimentalarenak, hain zuzen ere".



Laborategi orotan protokolo batzuk ezarrita daude saiakuntzak egiterakoan jarraitu behar diren jardunbideak zehazteko. Halatan, Carmen Pardok proposatzen duen "laborategi globalean" badirudi arau horien xedea dela portaera globalak sortu eta zabaltzea, hau da, pertsona "normal" bihurtzen lagunduko dituzten mekanismo erregulatuak sortu eta zabaltzea. Arau horien barneratze mailaren adibide izan daiteke, haurrak kontrolatzeko, txipak erabiltzea, edota eskoletan bideokamerak jartzea, "Foucaultek eta Deleuzek azaldutako diziplinazko gizarteetatik kontrolako gizarteetara iragatea bizitzen ari gara. Legeak dagoeneko ez dira beharrezkoak, eta haien ordeztuak portaera ereduak ezarri dira, eta horren jakitun ez bagara ere, geure baitan daude horiek", esan zuen Carmen Pardok.

Soinua ere erabili izan da, eta orain ere erabiltzen da, jendearen portaera kontrolatzeko eta manipulatzeko. Helburu horrekin erabilitako lehen tresna megafonia izan zen. Geroago, irratia elkarrekin entzuteak, Carmen Pardoren ustez, pertsona arteko harremanak modulatzeko balio izan zuen. I. Mundu Gerran alemaniar hegazkinetako sirena eolikoak hildako piloak eragin zuen armada

ingelesean eta frantsesean: horra hor soinuak pertsonengan izan dezakeen eragin suntsitzailearen beste adibide bat. Berrikiago, Irakeko gerran erabilitako A-10 hegazkinen turbinek emaitza berdina izan dute.

Soinua kontrol modua bezala erabili izan da, baina baita ere portaerazko jarraibide mozarrotuak hedatzeko. Hari musikalak, jatetxeetan, merkataritza zentroetan, garraio publikoan, edo osasun zentroetan etengabe aditzen den horrek, galarazi egiten digu leku horietako bakoitzean izaten ditugun beldurrei edo sentipenei aditzea. "Ez dugu ahaztu behar zerranda horretan diskoak sartzea: asmakari miresgarria da, soinuazko gure iruditeria berdintzen laguntzen duena", esan zuen Carmen Pardok. Soinua laborategi globalaren barruan erabiltzeak bi helburu ditu: esperientzia kudeatzea eta identitate jakin bat sortzea.

Bizi dugun unea kezagarria bada ere, Carmen Pardok ikusten du badagoela "musika esperimentaleko laborategi txikietan" jardun bat, portaera globalak transmititzeko ildoari zirkuitulaburra egin diezaiokeena. "Lehenengo musikak kontrol sistemak islatzen baldin bazituen, zergatik soinuazko saiakuntzak ezin dituzte ihesbideak erakutsi? Musika mota hori sortzeko, entzulea izan beharra dago, batez ere, ezezaguna onartzeko prest egon, jarrera irekia eduki. Musikariak diziplina gogorra eduki behar du soinu baldintzatuek eta botereak atzetik eraman ez dezaten", botereak soinuaz egiten duen erabilerari adi egon behar horrek, eta egiteko moduak bilatu behar horrek, eta hautazko proposamenek, egoera etenak sortzeko giltza eduki dezakete.

-----

## **CC**

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.